




LEABURU-TXARAMAKO UDALA
GIPUZKOA

Alkatetza Dekretuaren bidez onetsitako 2013. urteko zaborrari buruzko tasen errolda jendeurrean jarri da, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Udal Ogasunen Arautzaileak, 14. artikuluko 1. zenbakian xedatutako betez. Halaber, Gipuzkoako Herrialde Historikoko Zergabilketa Erregelamendua onartzen duen apirilaren 9ko 27/1991 Foru Dekretuaren 78. artikulua eskatzen duen bezala, borondatez ordaintzeko epearen eta eraren berri eman da. Hori guztia ondorengo arauen arabera:

- a) Jendearen agerian dagoen lekua: Idazkaritza-Kontuhartzailletza.
- b) Aztertzeko epea: hilabetekoa, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.
- c) Ezadostasuna agertzeko epea: Hilabetekoa, b) hizkian adierazi bezala, aurkeztu beharreko berraztertzeko errekurtsoren bitartez.
- d) Errekurtsoa aurkeztu behar zaion organoa: Udalbatzarra.
- e) Erreklamazioak aurkezteko tokia: Udaleko sarrera errejistroa, bulego orduetan.
- f) Errekurtsoa aurkeztearen ondorioak: Aipatu Foru Arauaren 14.2 artikuluan xedatutakoak.
- g) Ordaintzeko epea: 2013ko irailaren 11 arte.
- h) Sarrera modua: Helbideratutako ordainagiriak, zergadunek adierazitako kontuako banketxe edo kutxan kargatuko dira. Helbideratu gabekoak zergapekoaren posta helbidera igorriko dira eta horien ordainketa Gipuzkoa Donostia Kutxan egin ahal izango da.

Leaburu-Txaraman, 2013ko uztailaren 29an
ALKATEAK



Stua.: M^a Luisa Uzkudun Etxenagusia